

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004ko urriaren 22a / 602. zenbakia



BERGARAKO MOTO-KROSLARIAK

Euskadiko txapelketan lehiatuko
dira domekan, Musakolan

UDAL ZERGAK: %3,5EKO IGOERA 2005EAN /4 • ELKARRIZKETA: TXAPA IRRATIKO LANDER JUARISTI/12

AZALA: MAITENA ARANA / JATORRIZKO ARGAZKIA: ELSA MANSO

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 22**
GUALLAR, San Antonio 5. 943 76 11 05
- ZAPATUA, 23**
ESTELLA, Matxiategi 5. 943 76 19 63
- DOMEKA, 24**
ESTELLA, Matxiategi 5. 943 76 19 63
- ASTELEHENA, 25**
MOZOS, Iparragirre 2. 943 76 12 15
- MARTITZENA, 26**
CAMACHO, Oxirondo 4. 943 76 11 74
- EGUAZTENA, 27**
ZABALA, Barrenkalea 25. 943 76 16 87
- EGUENA, 28**
GUALLAR, San Antonio 5. 943 76 11 05

TELEFONOJAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda) 943 03 54 00
- Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46
- Ertzaintza 943 53 47 20
- Osasun etxea 943 76 24 40
- Asepeyo 943 76 16 43
- Pakea 943 76 13 49
- Angiozarko medikua 943 78 90 27
- Antzuolako medikua 943 76 62 23
- Odol emaleak 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

- GARRAIOAK**
- Taxiak 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
- Udal Artxiboa 943 77 91 32
- Igerilekuak 943 76 20 51
- Kultura etxea 943 77 91 58
- Liburutegia 943 77 91 62
- Kirolegia 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia 943 76 14 92
- Erregistroa 943 76 13 15
- Jardun 943 76 36 61
- Idolaz 943 76 65 08
- Erretiratuen etxea, Bergara 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71
- Postetxea 943 76 26 85
- Bedelkar 943 76 04 68
- Akulu AEK 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia 943 76 44 53
- Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- San Pedro**
- Domekak: 09:30.
- Zapatuak eta lanegunak: 19:00.
- Santa Marina**
- Zapatuak: 19:00.
- Domekak: 13:00.
- Sierbak**
- Lanegunak: 19:30
- Osintxu**
- Domekak: 12:00.
- Elosu**
- Domekak: 11:00.
- Ubera**
- Domekak: 10:30.
- San Juan**
- Domekak: 11:00.
- Elorregi**
- Domekak: 10:30.
- Labegaraieta**
- Domekak: 11:00.
- San Lorenzo**
- Zapatuak: 20:00.
- Angiozar**
- Domekak: 11:00.
- Moja Zaharrak**
- Lanegunak: 08:00.
- Mizpirualde**
- Lanegunak: 11:45.
- Zapatuak: 17:30.
- Antzuola**
- Domekak: 10:00, 11:30.
- Zapatuak eta lanegunak: 19:30.
- Uzarraga**
- Domekak: 10:00.
- Elgeta**
- Lanegunak: 09:00.
- Zapatuak: 19:30.
- Domekak: 12:00.

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**
- Hileko bigarren domekan, 13:00etan.
- San Pedro**
- Hileko hirugarren domekan, 09:30ean.

OHARRAK

1962AN JAIOTAKOEN AFARIA
1962an jaiotako enafaria urriaren 30ean, Erreki-jatetxean. Izenematea (10 euro aurrez) bertan. Afaria egunean Frontoian elkartuko dira, 20:00etan.

1951N JAIOTAKOEN AFARIA
1951n jaiotako enafaria urriaren 30ean, Azpeitxi-jatetxean. Izenematea (30 euro) Euskadiko Kutxan.

1945EAN JAIOTAKOEN AFARIA
1945ean jaiotako enafaria azaroaren 6an, Azpeitxi-jatetxean. Izenematea Euskadiko Kutxan.

1930EAN JAIOTAKOAK
1930ean jaiotako enafaria azaroaren 13an, Zumelagan. Izenematea 943 76 22 22 edo 943 76 15 88 telefonoetan.

1953AN JAIOTAKOEN AFARIA
1953an jaiotako enafaria azaroaren 13an, Txarrantxa-jatetxean. Izenematea (15 euro aurrez) Txarrantxan, Kiñun edo ONCeren kioskoan (Tasio).

1943AN JAIOTAKOEN AFARIA
1943an jaiotako enafaria azaroaren 13an, Azpeitxi-jatetxean. Izenematea 943 76 22 90 (Maher), 943 76 16 13 (Zubieta denda) edo 943 76 53 22 (Tejidos Fernandez) telefonoetan.

1933KOEN BAZKARIA
1933an jaiotako enafaria azaroaren 14an, Zumelagan. Izenematea (6 euro aurrez) Intxorta tabernan.

1947AN JAIOTAKOEN AFARIA
1947an jaiotako enafaria azaroaren 20an, Tartufo-jatetxean, 21:00etan. Izenematea Euskadiko Kutxan.

1944AN JAIOTAKOEN AFARIA
1944an jaiotako enafaria azaroaren 27an, Azpeitxi-jatetxean. Izenematea: 943 76 13 61 (Mari Karmen Garitano) edo 943 76 23 70 (Sanchez ile-apaindegia).

URBANOENORDUTEGIA

- San Lorenzo / San Juandik irteerak**
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
- GERALEKUAK:** San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala-jatetxea.
- Labegaraieta / Olabarrenetik irteerak**
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
- GERALEKUAK:** Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10 URTE BERGARAN

Bergarako sei korrikalari Donostiako maratoian


Bergarako sei korrikalarik hartu zuten parte 1994ko urriaren 16an jokaturako Donostiako maratoian. Herriko korrikalarien artean Basilio Aranburu izan genuen onena orain dela hamar urte, bi ordu, 38 minutu eta 44 segundo-rekin. Bixente Pagaldaik (argazkian) 17. aldiz korritu zuen Donostiako maratoia urte hartan.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“Gizonkerixa”

Gizonkerixak egin nahi dittuenaren iharduera.
— Purua erre, pattarra eran... gizonkerixak eitteb ibili zan gure mutikua, ta gero botaka.



JON IRAEGI

ASTEKOPELIKULAK

‘ROMA’

ZUZENDARIA: ADOLFO ARISTARAIN. **AKTO-REAK:** JUAN DIEGO BOTTO, SUSU PECORARO, JOSE SACRISTAN.

HARIA. Espainian erbesteratutako argentinar idazle baten bitartez bere jaioterriaren gaineko ikuspegia ematen digu Aristarainek bere azken filmean.

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 19:30ean eta 22:15ean; astelehenean, 19:30ean (ik. eguna).

PUNTUAZIOA: ●●●●●

‘SPY KIDS 3-D’

ZUZENDARIA: ROBERT RODRIGUEZ. **AKTO-REAK:** ANTONIO BANDERAS, CARLA GUGINO, SYLVESTER STALLONE.

HARIA. Gaizkile batek sortutako bideo joko arriskutsu bati aurre egin behar diote Cortez anaiek. Mundu osoko bideo jokoen zaleen artean nahasmena sortzea da Toymaker gaizkilearen helburua, baina Carmen eta Juni gaztetxoek ez diote lana erraztuko...

TOKIA ETA ORDUA. Zapatuan eta domekan, 17:00etan.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

HAUGIROA!

MINIMOA 8 °C
Zapatua, 16

MAXIMOA 24 °C
Martitzena, 19

ASTEKO EURIA (l/m²) 66,9 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 13	21 °C	8 °C	6,2 l/m ²
Eguena, 14	20 °C	10 °C	0,3 l/m ²
Egubakoitza, 15	12 °C	8 °C	35,9 l/m ²
Zapatua, 16	12 °C	8 °C	17,6 l/m ²
Domeka, 17	16 °C	8 °C	0,1 l/m ²
Astelehena, 18	20 °C	9 °C	6,3 l/m ²
Martitzena, 19	24 °C	14 °C	0,5 l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

IRURAK MARGOAK
DISEINUA, S.L.

Era guztietako lanak Paper pintatuak
Moketa eta sintasola Harea zorrotada
Iztuku esponjatua Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

ATREBENTZIAEZPADA/ Herriko zein tokitan ibiltzen zarete jolasean?



MARIA AGINAGALDE
7 urte



JULEN JORGE
9 urte



LEIRE ALTUBE
9 urte



AMAIA GALARRAGA
8 urte



CHRISTIAN RODRIGUEZ
7 urte



ANDER SECO
8 urte

Frontoi aurrean, Fraisko-zurin ibiltzen naiz jolasean gehienetan. Ziburuak dau-den tokietara, berriz, ez naiz askotan joaten, ez zait zibu-ruetan ibiltzea gustatzen eta.

Justo Garate plazan dauden ziburuetan ibiltzen naiz lagunekin, hango ziburuak ongi daude eta. Beste batzuetan frontoi ingurura edo seminariara ere joaten gara jolastera.

Espolaira joaten naiz, eta hango ziburuetan ibiltzen gara etxetik gertu daude-lako. Baina ez dira nahikoa denentzat, eta kioskoaren orde ziburu gehiago ipini beharko lituzkete.

Espaloian edo Ibargaraiko plazatxo batean dauden zibu-ruetan jolasten gara lagu-nok. Bi leku horietan daude ziburuak, baina agian gehi-go ipini beharko lituzkete denok jolas egiteko

Frontoi aurrean dagoen parkera joaten naiz. Gehie-netan futboleko ibiltzen gara lagunok, han nahiko toki dago eta. Ziburuetan ibiltzea, berriz, ez zait gus-tatzen.

Simon Arrieta inguruan ibiltzen gara gehienetan, baina Ibargarai aldamene-an dauden ziburueta ere joaten gara batzuetan. Ber-garan nahiko toki daukagu jolaserako.

TXALOKETATXISTUAK



TXALOKI TXAPA IRRATIA entzun dezagun lanean dihardutenek lan bikaina egiten dute. Txapa irratiko entzule batek deitu digu esanez, irratsaioak egiten dituztenek txalo handi bat merezi dutela. Izan ere, "borondatez jarduten dute eta oso entretenigarria da herriko jendea irratian entzutea. Gainera, gurean oso ongi hartzen da seinalea". Bide batez, 20. urtemugarengatik zorionak eman nahi dizkie. /I.A.

ETABARRUAN...

ASTEKO /5

Ziburuak, txarto

Hainbat tokitan ziburuak egoera txarrean direla eta, emakume talde baten kexak izan dira.

KIROLA /9

Kirol argazkiak kultura etxean

Kirol Argazki Lehiaketako lanik onenak ikusgai daude kultura etxeko erakustokian.

KULTURA /12

Herriko lau talde Danbakan

Herriko lau musika taldek lehiatuko dira gaur abian jartzen den Danbaka lehiaketan.

ASTEKO DATUA

175

BANDAREN 175. URTEURRENA GERTATZEN

Udal Musika Bandaren 175. urteurrena ospatuko da 2007an. Urteurreneko ospakizunei begira Bandaren historia jaso nahi da, eta lan horretara zuzenduko da hain zuzen Justo Garate beka.

BESTEKE SANA

“

Grabazio egunetan hamar edo hamabi orduz lan egiten genuen. Filmaketaz gain, hurrengo

egunekoa antolatzen aritzen ginen. Zerbait asteburutan ere lanean ibiltzen ginen. Egia esan nahiko nekatuta gaude. Grabaketa abuztuan hasi bazen ere, produkzio lanak apirila edo maiatza inguruan hasi genituen”

ASIER ALTUNA / Zinema zuzendaria 'Zabalik' /04-10-15.

“

Agintariak inposatu diguten nekazaritza politikak enbarazu egiten digu emakumeoi. Landa turismoa.

aldiz, bizimodua ateratzeko aukera ezin hobea da. Gustuko dugu eta gure herriaren enbaxadore bihurtzen gaitu”

MAITE ARISTEGI / Baserritarra 'Berria' /04-10-17.

BERAIEKDIÑO / Ainhoa Agirreazaldegia



Tafallatik euskaraz

Lana dela medio, Tafallan bizitzea egokitu zait. Lehen momentuan “aupá Ainhoa, aprobe-txa ezan aukera beste Euskal Herri hori ezagutzeko”, esan nion neure buruari.

Hilabete daramat eta uste baino gehiago ari naiz ikasten gure Euskal Herriaz.

Gaurkoan hemengo euskararen egoeraz hitz egin nahi nuke.

Besterik pentsa-tuko nukeen arren, eguneroko bizimoduaren erdia baino gehiago euskaraz egiten dut.

Egia da nire lanbideak (euskara irakaslea) horretan laguntzen didala baina, lagun-taldeko kideak ere, gehienak euskaldunak ditut. Eta horietako asko sortzez tafallarrak dira.

Aspaldian ez bezala, askotan hunkitzen naiz. Kontraesanak handiak dira. Ingurunea erdalduna da oro har, baina hor dago ikastola, hogeita hamar urtean ikasle euskaldunekin lanean; hor dago AEK, 1979tik urtero

hogeita hamabost ikasle-tik gora dituela; hor gaude institutuan, lauhun ikasle baino gehiagori asteroko euskara eskolak ematen. Beraz, euskara ez da irla galdu bat.

Nik euskaldunak eguneroko inguruan ditut: lankideak,

ikasleak, lagunak, ezagunak, dendar-riak, tabernariak, bizilagunak...

Badira hitz egin ez arren, euskara ulertzen duten asko ere.

Eta hala ere, batzuetan egoera gogorra da. Institutuko zuzendariak

“profesora nativa” bezala aurkeztu ninduen lehen astean. Ingelesa banintz bezalaxe.

Baina oraindik inork ez dit esan, euskaraz mintzatu natzaionean, “háblame en castellano” edo gisakorik.

Dendari eta tabernari asko dira bezeroekin komunikatzeko euskara ikastaroren bat egin dutenak.

Eta ni hunkitu egiten naiz, gure Euskal Herriko lur arre hauetan.

“Tafallan eguneroko bizimoduaren erdia baino gehiago euskaraz egiten dut”

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Aintzane Irizar
Iratí Agirreazaldegia
MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberezar

LEGE-GORDAILUA
55-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako Kultura saila



Gipuzkoako Foru Aldundia



Bergarako Udala



Antzuolako Udala



Elgetako Udala



Goiena
Komunikazio Zerbitzuak



Udal gobernuko alderdiek bat egin zuten zergen igoera onartzeko orduan.

ARTXIBOA

ZERGAK/ Kontsumo Prezioen Indizearen arabera finkatu da zergen igoera

Udal zergek %3,5eko igoera izango dute datorren urtean

EDU MENDIBIL

EAJ-EA koalizioaren eta Aralar alderdiaren aldeko botoekin, 2005erako %3,5 igoera finkatu da udal zergetarako. Urak eta zaborrak, hala ere, igoera handiagoa izango dute. Urerengatik %7,95 gehiago ordainduko dugu eta zaborren tasak %17 egingo du gora.

Udal zerga, tasa eta prezio publikoen % 3,5eko igoera onartu zuen udalbatzak astelehenean. Udal gobernua osatzen duten EAJ-EA koalizioak eta Aralarrek igoeraren alde egin zuten; PPko Angel Santanok eta PSE-EEko Francisco Javier Garai zinegotziek, berriz, ezezko botoa eman zuten. Andres Diez Ezker Batuko ordezkaria, berriz, ez zen asteleheneko udalbatzan izan. Oposizioko alderdiek ez zuten euren jarre-

raren arrazoiak azaldu boto esplizitazioaren txandan.

URAK ETA ZABORRAK GORA

Datorren urterako, beraz, %3,5eko igoera aplikatuko da. Kontsumo Prezioen Indizearen arabera finkatu da aipatutako igoera. Urte bukaerarako KPI %3,5era iristea aurreikusten dute adituek.

Aurreko urteotan bezala, hainbat zerbitzuek kopuru hori baino igoera handiagoa izango dute: urak eta zaborrak %7,95 eta %17ko igoera daukate, hurrenez hurren, eta azokako eta hilerriko kuotei, esaterako, %5eko igoera aplikatuko zaie. Uraren igoera Ur Partzuergoak ezarritakoa dela adierazi dute Udaleko iturriek. Bestalde, sektore komertzialean, %17ko igoera izango du zaborren tasak, eta kategorien arabera ezarriko dira tasa ezber-

dinak. Kirol zerbitzuei, berriz, %3,5 igoera aplikatuko zaie, baina igerilekuari lotutako tarifak ez aldatzea erabaki zuen udalbatzak. Nobedade gisa, hurrengo urtean uda sasoirako txartela eskuratu ahal izango da. Herri-asko dira igerilekura udan bakarrik joaten direnak eta beraz, ekainetik irailera bitartean, Agorroingo berdegunean eguzkia hartzeko eta igerilekuan bainua hartzeko aukera izango dute txartel hori ateratzen dutenek.

Bestalde, ibilgailuen gaineko zerga ere %3,5 igoko da eta tarifa ezberdinak aplikatuko dira Udalaren baremoen arabera. Mizpirualde egoitzari dagokionez, %4,5 igoko dira tarifak.

Zergen gaineko proposamena ikusgai izango da, nahi duten herritarrek, 30 eguneko epean, erreklamazioak egiteko aukera izan dezaten.

UNEDeko kurtso hasiera ekitaldia gaur, udaletxean

E.M.

UNEDeko 2004-2005 ikasturte hasierako ekitaldi akademikoa izango da gaur, egubakoitza, udaletxe oso bilkuren aretoan, 19:00etan hasita. Besteak beste, Joxe Joan Gonzalez de Txabarri diputatu nagusia, Jorge J. Montes Salguero UNEDeko errektorea, Victoriano Gallastegi Bergarako alkatea eta Juan Jose Alvarez Bergarako UNEDeko zuzendaria izango dira gaurko ekitaldian. Ikasturte hasierako hitzaldia, berriz, Santi Erasok egingo du. Artelekuko zuzendariak *La cultura como experiencia* izenburuko hitzaldia eskainiko

du, Gallastegi alkatearen agurraren ondoren. Musika Eskola-ko hari taldeak ere hartuko du parte ekitaldian.

ESKAINITZA ZABALA

Bergarako UNED ikastetxeak hogei unibertsitate karrera baino gehiago eskaintzen ditu ikasturte berri-ako. Graduatu ondoko ikastaroak, unibertsitatera sartzeko 25 urte-rik gorakoendako ikastaroak eta hezkuntza irekiko ehun ikastaro ere eskainiko dira.

Berrikuntzen artean, Gizarte Lana eta Ingenieritza Tekniko unibertsitate ikasketak dira. Matrikulazioa egiteko epea azaroaren 15era arte izango da zabalik.



Argazkian, iazko ekitaldiko irudi bat.

ARTXIBOA

LABUR

Herriko jaiak eta kaleko giroa berpizteko asmoz bilera egingo da datorren egunean

Hainbat taldetako kideek herriko jaiak eta kaleko giroa berpizteko ahaleginetan dihardute. Egunean, hilaren 28an, bilera egingo dute kultura etxean, 19:30ean, eta gaiarekin interesatutako guztiei bileran parte hartzeko dei egiten diete.

Udalaren egutegian publizitatea egin nahi dutenei dei egin die Euskara zerbitzuak

Bergarako Udala prestatzen hasi da dagoeneko 2005eko egutegia. Aipatutako egutegian publizitatea egin nahi duten dendari, enpresa, talde eta abarri dei egiten zaie, Udaleko Euskara zerbitzuarekin harremanetan jar daitezten. Argibideak Euskara zerbitzuaren 943 77 91 71 telefono zenbakian.



NATURHOUSE
Nutrizioa eta Dietetika

Simon Arrieta 3 • BERGARA
• Tel.: 943 76 48 56

NATUR HOUSE



- Dieta pertsonalizatuak
- Kontsultak doan

Leire Perez Sampedro

Biologia Zientzietan lizentziaduna
Dietetika eta Nutrizioan espezialista

Zatoz, ez itxaron gehiago!

AISIALDIA/ Udaleko iturrien arabera, herriko ziburuen egoera txarra da, erasoak behin eta berriz errepikatzen direlako

Matxiategiko ziburuen egoera kaskarra salatu du emakume talde batek

EDU MENDIBIL

Matxiategin diren ziburuak aspaldian egoera kaskarrean direla salatu du seme-alabak hara jolastera errotan dituen emakume talde batek. Udaleko iturrien arabera, arazoa ez da Matxiategira mugatzen, ganberroek ziburuak apurtzeko ohitura hartu baitute.

Herriko hainbat tokitan ziburuak daude: Elorregin, Espoioian, Bolun, Justo Garate plazan, Ueberan, Elosun, Osintxun, Geronon, Basalgon, Maduran, San Martin eskolan, Martokan eta Matxiategin hain zuzen ere. Zabalotegin zirenak kendu behar izan zituzten irailaren hasieran, ganberroen erasoengatik. Halaxe azaldu digu Iñaki San Jose Udaleko Obra eta Zerbitzuetako buruak: "Astero izaten dira erasoak ziburuak, farolak, semaforoak edo dena delakoaren kontra eta ziburuak kalte dezente jaso izan dituzte aspaldian. San Martin eskolan jolasteko dagoen tren bati azken bagoia kendu diote orain dela gutxi eta Zabalotegiko ziburuak kentzeko erabakia hartu genuen, erasoak behin eta berriz errepikatzen zirelako. Antza denez, Matxiategiko zibu-

ruak ere erasotzeko ohitura hartu dute ezezagun batzuek".

EMAKUME TALDE BATEK HASERREA

Hain zuzen ere, Matxiategin diren ziburuen egoera dela eta, emakume talde batek bere haserrea azaldu du. Beraien izenean zera adierazi digu Mari Karmen Toledok: "Ziburuen egoera negargarria da. Ez goaz ziburu berriak eskatzera, baina gutxienez ziburuen mantenua behar den bezalako izatea nahiko genuke. Ume txikiak dabilzan tokietan segurtasuna ezinbestekoa da eta mantenua ona izan behar du derri gorrez. Noizean behin ganberro batzuek apurtutakoa konpontzea ez da nahikoa. Apurtu daitekeen hori behar bezala zaintzea eta beharra baldin badago apurtu aurretik aldatzea, hori eskatzen dugu. Istripu larriren bat gertatu aurretik, Udalarik ziburuak konpontzea eta baldintza onetan mantentzea eskatzen diogu".

ERASOAK BEHIN ETA BERRIZ

Juanjo Arrieta Gobernazio batzorde buruaren esanetan, Udala da ziburuen mantenuaren arduraduna. Erasoak errepikatzen direnez, ziburuen egoera txarra dela aitortzen du Arrietak: "Orain arte 12.000 euro gastatu ditugu



Matxiategiko hainbat ziburu hesi batekin inguratuta egon dira egun hauetan.

aurten ziburuak konpontzen eta arazoa larria da, erasoak gehiegi errepikatzen direlako. Orain ez dago horretarako dirurik baina

datorren urteko aurrekontuan diru partida garrantzitsua biderratu nahi dugu herriko ziburuak berritzeko, orokorrean txarto

daude-eta. Orain, Murbipark enpresakoak etortzeko zain gauden, azkenaldian ziburuetan egon diren kalteak konpontzeko".

Justo Garate beka Udal Bandari zuzenduko da datorren urtean

Udal Musika Bandaren historia biltzea izango da Justo Garate bekaren helburua hurrengo urtean. Bandak bere sorreraren 175. urteurrena beteko du 2007an eta aurretik taldearen historia jaso nahi da.

Bergarako Udal Musika Banda 1832. urtean sortu zen eta beraz 2007an Bandaren sorreraren 175. urteurrena ospatuko da. Urteurrenako ospakizunei begira, besteak beste, Bandaren historia jaso nahi da eta beraz datorren urtearen hasieran Justo Garate beka deituko du Udalak, lan hori adjudikatze asmoz. Aurrekoetan bezala, bekaren zenbatekoa 6.000 eurokoa izango da eta lana euskaraz burutu beharko dute egileek. 2005eko lehen hiruhilabete koan lana adjudikatuta izatea da Udalaren asmoa.

Justo Garate beka 1992an jarri zen abian, soziologia, historia eta euskal filologiako lanei zuzenduta. Hala ere, azken aldiz, 1999an deitu zuen beka Udalak.



Bandaren sorreraren 175. urteurrena ospatuko da 2007an.

Genero harrëmanak Bergaran; gure emakumeen ohizko bizitza lehenengo industrigintza garaian (1870-1936) lanagatik eskuratu zuen beka orduan.

BANDA DOMEKAN, OSINTXUN

Udal Musika Bandak emanaldia egingo du domeka eguerdian, Osintxu pilotalekuan. Kon-

tzertua 12:30ean hasiko da eta Bandak honako pieza hauek joko ditu: Alfredo Gonzalez Chirlaqueren *Ibarratik Tolosara* euskal marxa; Bizet-en *El pescador de perlas* operako obertura; *Gigantes y cabezudos* zartzuela zati bat, Caballerorena, eta Gonzalez Chirlaque berak moldatutako *Tirolische melodien*.

LABUR

Orfeoiak urteko batzarra egingo du egubakoitzean, hilaren 29an, Zabalotegin

Orfeoiak urteko batzarra egingo du egubakoitzean, hilaren 29an, Zabalotegiko aretoan, 20:15ean lehen deialdian eta 20:30ean bigarren. Barneko arauak eta taldearen egoera izango dituzte aztergai. Orfeoiak kideei parte hartzeko deia egiten die zuzendaritzak.

Perretxikoen gaineko hitzaldia izango da eguenean kultura etxean, Jardunen eskutik

Jardun elkarteak antolatuta, Ibai Olariaga Aranzadi Zientzia elkarte kideak *Euskal Herriko perretxiko jangarri eta pozoitsuak* izenburuko hitzaldia egingo du eguenean, hilaren 28an, kultura etxean, 19:30ean.

Elikadurari loturiko nahasteen prebentzioa lantzeko ikastaroa izango da azaroaren 6an

Elikadurarekin loturiko nahasteen prebentzioaren gaineko ikastaroa izango da azaroaren 6an kultura etxean. Aisialdian gazteekin lan egiten duten begiraleei zuzenduta dago eta matrikula doaneko da. Argibideak Udaleko Ongizate Zerbitzuan: 943 77 91 24.

Argentinari buruzko ikus-entzunezkoa eguaztenean, hilaren 27an, Zabalotegin

Udazken Kulturaleko programazioaren barruan, Xabier Bañuelosen *Argentina aberatsa, Argentina pobrea* izenburuko ikus-entzunezkoa eskainiko da eguaztenean, hilaren 27an, Zabalotegiko aretoan, 18:30ean. Sarrera doanekoa izango da.

POLITIKA/ Udalbatzan ordezkariak izateko borrokan jarraituko dutela adierazi zuten prentsaurrekoan

Bergara Aurrera taldea Udaleko batzordeetan parte hartzen hasiko da

E.M.

Udaleko batzordeetan parte hartzen hasiko dela esan zuten Bergara Aurrerako kideek martitzenean, prentsaurrekoan. Udalbatzan oposizioz ez dagoela eta udal gobernuaren gestioa ere kritikatu zuten Bergara Aurrerako ordezkariak.

Udaleko batzordeetan lanean hasiko diren arren, udalbatzan benetako ordezkariak izateko borrokan jarraituko dutela adierazi zuten Maite Guridi, Jesus Mari Garitano, Mikel Eguren eta Mila Elortzak: "Dagozkigun hautetsien auzia konpontzeke dago, eta lan horretan jarraituko dugu". Udal gobernuaren gestioa kritikatu zuen Bergara Aurrerak: "Utzikeria, planifikazioz eza eta proiektuen jarraipen eskasa eguneroko kontuak dira Udalean. Gestio eskasaren adibide gisa, hor dira kolektoreko lanak, igerilekuen proiektua eta Urteaga kalean gertatutakoa". Kolektoreko lanen gainean zera adierazi zuten: "Horrelako obra bati probetxua atera behar zaio, aspal-



Bergara Aurrerako kideak, martitzeneko prentsaurrekoan.

ditik pentsatuta dauden hainbat proiektu aurre egiteko; gasolindegien inguruko eta Torreako biribilguneak eta Ibarako urbanizazioa, besteak beste. Bideberrin gertatutakoa ere hor dago: herritar batek abisua eman ez balu, zuhaitz erdiak galduta

lirateke honezkerok". Urteaga itxita jarraitzea ere larrizat jo zuten Bako ordezkariak: "Udalaren aldetik presio handiagoa egin behar da, ezin da horrenbeste denbora igaro gaiari heldu barik", esan zuten Egurenak. "Kirolgune berriaren finantzia-

zioari buruz eta lanen epeei buruz gauza handirik ez dakigu eta Ariznoa plazan egiten diharduten proiektuak ez du bermatzen plaza horrek izan duen erabilera soziala, zuhaitz eta jarleku pare bat aurreikusten dira-eta", gaineratu zuten.

LABUR

Jardun elkartearen Jolasleku Ibiltaria Espoioan gaur

Jardun elkartearen eskutik, Jolasleku Ibiltaria izango da gaur, egubakoitza, Espoioan, 17:00etatik 19:00etara. Jarduneko lau begiraleren laguntzaz hurrei zuzendutako kantak eta jolasak izango dira.



Bestalde, Txapligu eta Txiskrilabi taldeko gaztetxoendako egongo dira aste bukeran. Bertan parte hartzeko interesa dutenek Jardunen, Errotalde jauregian eman dezakete izena.

Kilometro Txikito jaia ospatuko da azaroaren 1ean

Pertxak antolatuta, Kilometro Txikito jaia ospatuko da azaroaren 1ean. Bergaran Kilometroak ospatu zeneko ibilbidea egingo da, 10:00etan Seminarioan hasita. San Martzialen hamaiketako izango da eta baba jana izango da Pertxa elkartearen, 14:00ak aldera. Ibilbidean parte hartu zein bazkarira joateko interesa duten guztiak Pertxan (943 76 33 50) eman dezakete izena.

UGARTE





AROSZTEGIA-ALTZARIAK



**ERAKUSKETA
ETA TAILERRA**
San Juan 1 A
Tel.: 943 76 54 91
Faxa: 943 76 08 04

**ZABALDU
BERRIA**

ALTZARI DENDA
Ikerleku kalean
Tel.: 943 03 46 30



MINGAINARITIRAKA



Zorione
Arregi

HHI-KO IRAKASLEA

Arrasatearra den arren, Bergaran bizi da Zorione eta hementxe dihardu lanean. Helduen Hezkuntza Iraunkorreko (HHI) irakaslea da; aurtengo ikasturtean hasi da hortxe, baina, hamar bat urte daramatza irakasle lanean.

Helduei, umeei edo gaztetxoei eskolak ematea nahiago?

Aukeran, helduei edo umeei; gaztetxoei ez naiz hain ondo konpontzen, eurekin gehiago borrokatu behar duzu. Besteekin, irakasle lana lasaiagoa da.

Irakasleek estres handia izaten ei duzue. Zeu estresatuta bizi zara?

Gaur egun, denok gaude estresatuta, ez dugu eta ezertarako patxadarik hartzen. Ni estresatuta bizi naiz, baina, ez irakaslea naizelako.

Oporrak ederrak izaten dituzue, baina. Non egon zara aurtengo udan?

Galizian eta Sanabrian, Zamoran.

Zure lanean, zer da gehien gustatzen zaizuna?

Pertsonekin lan egitea; asko ikasten da, bai umeengandik, bai helduengandik.

Eta gutxien?

Adibidez, umeekin ordu asko egiten dituzunean, lan oso neketsua da. Bestalde, pazientzia handia behar da irakasle izateko, eta hori, askotan, ez da erraza izaten.

Denbora librean, zer egitea gustatzen zaizu?

Kirola egitea gustatzen zait, batez ere, mendian ibiltzea eta igeri egitea. Etxekoan lasai egotea ere asko gustatzen zait.

Gustuko mendi bat?

Urbia aldea.

Liburu bat?

La casa vacia, Rosamunde Pilcher-ena.

Telebistako saio bat eta aurkezle bat?

Saioa, *Bertatik bertara*; aurkezlea, berriz, Euzkitze.

Bergaran, zer falta da?

Igerileku eder bat.

Bergarako gauza onena?

Herri lasaia da, eta ia denetik daukagu; bestalde, ez da herri oso handia, ez oso txikia, tamainakoa da.

Zer eskatzen diozu etorkizunari?

Osasun ona izatea eta ingurukoak nirekin pozik egotea.

AINTZANE IRIZAR

BERGARARRAKMUNDUAN

AMAIA MORENO

28 URTE / INFORMATIKARIA / LUGONES-EN BIZI DA, OVIEDO ONDOAN

“Asturiarrak gure oso antzerakoak dira, eta erraz egokitu nintzen hemengo bizimodura”

AINTZANE IRIZAR

I azko otsaila ezker bizi da Amaia Asturiasen, Oviedo ondoko Lugones herrixkan, hain zuzen ere; Oviedotik sei kilometrora dago Lugones. Mutil-laguna asturiarra da, eta horregatik joan zen Amaia hara bizi izatera. Laredon, oportretan zeudela, ezagutu zuten elkar Amaiak eta mutil-lagunak. Argazkian, Asturiasen hain tipikoa den garai baten (horreoa) aurrean ikus dezakegu Amaia.

“Ikasketak amaitu nituenean, bi aukera genituen, ni Asturiara joatea bizi izatera edo bera Bergarara etortzea; berak lan egonkorra zuenez hemen, ni hona etortzea erabaki genuen”, gogoratzen du Amaiak.

Informatika ingeniaria da Amaia, eta horrexetan lan egiten du, Asturiasko Ingurumen Fundazioan. Oviedora bizi izatera joan eta hilabete batzuetan langabezian egon zen, baina, azkenean, berak ikasitako horretan lan egiteko aukera izan zuen. Oso gustuko du hiria Amaiak: “Oso hiri ederra da; alde zaharreko kaleak oinezkoendako bakarrik dira; monumentu mordoa dago eta denak oso ondo zainduta daude; berdegune asko dago eta oso hiri garbia da, gainera. Niri, behintzat, izugarri gustatzen zait”.

Unibertsitatea dago Oviedon, eta ikasle mugimendu handia dago; “giro berezia ematen diote ikasleek hiriari”. Gainera, atzerritik ere ikasle mordoa joaten da, Erasmus bekei esker, ikasketak egitera.

“Asturiarrak gure oso antzerakoak dira, oso irekiak, eta ez zidan lan handirik eman hemengo bizimodura egokitzeak”, diosku Amaiak. Gainera, mutil-lagunarekin sei urte daramatza eta aspalditik ezagutzen zuen Amaiak Asturias.

Asturiasen badute hizkuntza propioa, bablea, hain zuzen ere. “Hitz batzuk badakizkit, baina ez dut bablez hitz egiten. Dena dela, ondo ulertzen dut, galegoaren oso antzerakoa da”. Mutil-lagu-

“Oviedo oso hiri ederra da; monumentu asko dauzka eta oso hiri garbia da”

nari euskara irakatsi dion ere galdetu diogu Amaiari; zera erantzun digu: “Hark ere hitz batzuk bakarrik dakizki, baina ez du euskara ulertzen. Dena dela, hona bizi izatera etorri nintzenean, hiztegi bat ekarri nion”.

Amaiak esan digu asturiarrak eta euskaldunak oso antzerakoak garela; baina, izaeraz gain, beste hainbat gauza ere baditugu komunean: sagardoa, esaterako. Ezinbesteko galdera egin diogu: Euskal Herriko ala Asturiasko sagardoa nahiago? Eta hona zer erantzun digun: “Hemengoa, Asturiaskoa”. Harri-

tuta geratu gara, baina halaxe da, sagardo asturiarra gehiago gustatzen zaio Amaiari: “Euskal Herriko garratzagoa da, eta hemengoa, berriz, gozoagoa da”. Mutil-lagunaren etxean, gainera, eurek egiten dute sagardoa: “Bergarara joaten garenean, botila batzuk eraman izan ditugu, eta sekulako arrakasta izaten du sagardoak”, diosku Amaiak.

Familiaren eta lagunaren hutsunea nabaritzen du Amaiak, baina, gainerakoan, oso gustura dago Oviedon. Askotan etortzen dira Bergarara, hilean behin edo birritan. Familiakoak ere askotan joaten zaizkio bisitan. Azken baten, hiru orduko bidea besterik ez dago Oviedora, Amaiak azaldu digun moduan. Etorkizunaren gainean galdetu diogu, azkenik, eta zera azaldu digu: “Hasiara baten, hemen bizi izaten jarraitzeko asmoa dugu; hementxe lan egiten dugu, eta ni oso ondo moldatu naiz hemengo bizimodura. Dena dela, inoiz ez da jakiten zer gertatuko den; denborak esango digu”.



AGIRREBEÑA
JATETXEA

- Kintadak
- Eguneko menuak
- Asteburuko menu bereziak

Igandetan itxita

Ibarra 2, Labegaraieta. Tel.: 943 76 21 45



FRONTOI



TABERNA

Fraiskozuri z/g.
BERGARA
943 76 05 09

MOTORRA

Herriko moto-kroslariak Arrasaten lehian izango dira domekan, Euskadiko Txapelketan

Euskadiko Txapelketako zortzigarren proba izango da Musakolako; herriko bost moto-kroslarik dihardute txapelketan

EDU MENDIBIL

Euskadiko Txapelketan diharduten moto-kroslari bergararrek hitzordua izango dute domekan, Musakolan. Emaizta onak lortzen ari dira bergarar motorzaleak. Bien bitartean, herrian motorrean ibili ahal izateko pista aldarrikatzen jarraitzen dute.

Bergarako sei lagunek hartuko dute parte domekan, urriaren 24an, Arrasaten jokatu den moto-kros proban. Musakolako proba Euskadiko Moto-kros Txapelketarako proba puntuagarria izango da eta han izango dira Imanol Zalakain, Joseba Lopez, Asier Blazquez eta Josu Mentxaka gaztetxoak. Baliteke Urtzi Markiegi eta Iker Murillo gazteak ere irteeran izatea domekako lasterketan.

Musakolan, senior, junior, kadete eta gazte mailako motorzaleak bilduko dira. Euskadiko Txapelketako zortzigarren proba izango da domekako. Txapelketa maiatzaren 1ean hasi zen, Gasteizen, eta azken proba azaroaren 14an jokatu da, Ereñon, Bizkaian. Euskal Motoziklismo Federazioak antolatzen du txapelketa.

BERGARARRAK MAILA ONEAN

Bergararrei dagokienez, emaitza onak lortu dituzte orain arte jokatuak probetan: senior mailan, 125 cm³-ko kategorian, Joseba Lopez sailkapenean hirugarren postuan dago, 210 punturekin, Beinat Aginaga bizkaitarraren (234 puntu) eta Rogers Carrasco urretxuarraren atzetik hain zuzen ere. Carrasco liderrak 266 puntu dauzka. Gauzak horrela, eta bi proba faltan, Joseba Lopezek aukera handiak ditu hirugarren postuari eusteko. Zaila izango du sailkapenean gorago egitea. Asier Blazquez, berriz, 15. tokian dago sailkapenean.

250 cm³-ko kategoriari dagokionez, Imanol Zalakain sailkapenean bosgarren tokian dago, 130 punturekin eta Asier Blazquez hamabigarren dago, 62 punturekin.

Josu Mentxaka 12 urteko gaztetxoak gazte mailan dihardu. Mentxakak maila ona azaldu du orain arte eta zazpigarren dago sailkapenean: orain arte jokatuak probetan 94 puntu eskuratu ditu. Bergarar motorzaleak Arrasate Motozale Elkartearen ordezkatuz lehiatzen dira Euskadiko Txapelketan.

Domekako txapelketa, esan bezala, Musakolan jokatu da, Eroski ondoko lursailean. Egur-diko 12:00etan izango dira entrenamendu libreak eta 15:00etan hasiko dira entrenamendu ofizialak. Lasterketa, berriz,



Imanol Zalakain, Joseba Lopez, Asier Blazquez, Xabier Zalakain eta Mikel Gomez. Lehen hirurak Arrasaten izango dira. Aurrean, Josu Zalakain eta Josu Mentxaka gaztetxoak.

**Domekako lasterketa
16:00etatik aurrera
jokatu da,
Musakolan, Eroski
ondoko lursailean**

**Bergarar moto
zaleek Udalera jo
izan dute,
entrenatzeko pista
bat eskatuz**

16:00etatik aurrera jokatu da. Zilindrada bakoitzeko bi txanda jokatu dira eta txanda bakoitzean 30 bat motor gidari lehiatu dira. Ikusleek bost euro ordaindu beharko dituzte proba ikustearren. 12 urtetik beherakoendako, berriz, sarrerak hiru eurotan salgai izango dira.

Euskadiko Txapelketaren barruan, Gipuzkoan jokatu den proba bakarra da Arrasatekoa eta aurreko ekitaldietan gertatu bezala, zale ugari biltzea espero dute antolatzaileek.

ZIRKUITU BATEN BEHARRA BERGARAN
Moto-krosean diharduten bergararrek herrian zirkuitu baten beharra dagoela azpimarratzen dute. Izan ere, udaberri partean

Udalera jo zuten, entrenatu ahal izateko pista bat eskatuz. Angiozar bidean dagoen hondakindegaren inguruan pista bat egokitzeko eskatu zioten Udalari. Hala ere, Udalak terreno hori Diputazioako Errepide departamentuarena dela erantzun zien. Badirudi AP-1 autopistako lanen barruan, inguru horretan berdegune bat egiteko asmoa duela

Diputazioak etorkizunean.

Motorzaleen arabera, beste kirol batzuetarako instalazioak beharrezkoak diren bezala, beraiek ere entrenatzeko leku baten beharra dute. Bergaran, mendiko motorrekin ibiltzen diren 40 bat lagun izango direla azaldu digu Kote Mentxakak. Askotan, bergarar motorzaleak Basauri, Haro, edota Mirandako

zirkuitu pribatuera joaten dira entrenatzera. "Han entrenatzeko ordaindu behar izaten dugu, zirkuitu pribatuak direlako.

Mendian ibiltzea debekatuta dago, baina instituzioen aldetik ez dugu inolako irtenbiderik jasotzen" dio Mentxakak. Bergarako motorzaleak aspalditik dabilta motorrarekin ibiltzeko pista bat aldarrikatzen.



Bergarar motorzaleak aspalditik dabilta herrian motorrean ibiltzeko pista bat aldarrikatzen.


Kirol Argazki Lehiaketan saritutako lanak kultura etxean ikusgai

EDU MENDIBIL

Kirol Argazki Lehiaketan saritutako lanak ikusgai dira kultura etxean gaurtik azaroaren 1era bitartean. Koloreko zein zuri-beltzeko kategorietan Javier P. Fernandez nagusitu da. Benito Cantero eta Juan Antonio Untzurrunzaga bergararrak ere saritu dituzte.

Berangoko Javier P. Fernandez aski ezaguna da, aurreko urteotan makina bat sari jasotakoa baita Bergaran. Kirol Argazkien Lehiaketan bi sari nagusiak eskuratu ditu, koloreko zein zuri-beltzeko kategorietan. Lehenbizikoan *Crawl* lanari esker nagusitu da eta zuri-beltzekoan *Al atardecer* izenburuko lanak eman dio lehen saria. Benito Canterok bigarren saria lortu du zuri-beltzekoan, *BTT Arrasaten* lanarekin. Juan Antonio Untzurrunzaga, berriz, herriko onena izan da zuri-beltzekoan (*Astarloa* lanarekin) zein koloretan (*En pleno esfuerzo*).

Guztira, 97 argazki jaso dituzte lehiaketan. Aurtengoa lehiaketaren 14. ekitaldia izan da. Graficas Otzarreta enpresan lanean diharduten Iñaki Kaperotxipi, Gorka Lasa, Rafa Espa-



Juan Antonio Untzurrunzagaren *Astarloa* lana, herriko onena zuri-beltzekoan.

da eta Goretti Aranburuk osatu dute epaimahaia.

ERAKUSKETA, AZAROAREN 1ERA ARTE Lehiaketara aurkeztutako lanik onenak kultura etxeko erakus-

keta aretoan ikusgai izango dira, azaroaren 1era arte.

Bestalde, datorren egubakoitzean, urriaren 29an, sari banaketa egingo dute erakustokian, 20:00etan.

KIROLDEGIA

Tenis ikastaroa kiroldegian eta igeriketa ikastaroak abian Agorrosingo igerilekuan

Kirol Zerbitzuak jakitera eman duenez, tenis ikastaroa abian jarriko da azaroan Labegarietako pistan. Eskolak martitzen eta eguenean izango dira, hasiera mailakoak 19:15etik 20:15era eta hobe-kuntza mailakoak 20:15etik 21:15era. Argibideak eta izena ematea Kirol Zerbitzuan, 943 77 91 67.

Bestalde, igeriketa ikastaroak eskainiko dira Agorrosin. Maila ezberdinak egongo dira. Izenematea Kirol Zerbitzuan egin daiteke.

SASKIBALOA

Kadete mailako saskibaloia partidua bihar kiroldegian eta pilota gaur Udal Pilotalekuan

Bergara KEko kadete mutilen saskibaloia taldeak Easo A taldearen aurka neurtuko ditu indarrak bihar, zapatua, Labegarietako kiroldegian, 12:00etan. Jokaturako sei partiduetatik bakarra galdu dute bergararrek.

Bestalde, pilota partidua izango dira gaur, egubakoitza, Udal Pilotalekuan, 19:00etan. Gabon sarikobenjamin mailako partiduen ondoren, senior mailako bikote bergararrek Amezketara eta Eibar taldeen aurka jokatuko dute.

FUTBOLA

Bergara KEko taldeek hiru partidu jokatuko dituzte bihar, zapatua, Ipintzako zelaian

Hiru futbol partidu izango dira bihar, zapatua, Ipintzan. Alde bate-tik, infantil mailako taldeak Aloña Mendiren aurka jokatuko du eguerdian, 12:00etan.

Bestetik, arratsaldean, beste bi partidu izango dira: bigarren gazte mailako taldeak Axular taldea izango du bisitari, 16:00etan, eta jarraian lehen gazte mailako taldeak Amara Berriren aurka jokatuko du, 18:00etan hasita.

FOTOKIROLA



Shotokan taldekoak Azkoitian sarituak

Zapatuan gerriko beltzik ez dutenen arteko Gipuzkoako Karate Txapelketa jokatu zen Azkoitian. Katetan, Unai Zabarte eta Miren Laskurainek irabazi zuten eta Aitziber Ferreiro hirugarren geratu zen; kumitetan ere Miren Laskurain nagusitu zen 60 kg-tik beherakoen artean, Ainhoa Zafra bigarrena izan zen 60 kg-tik gorakoetan eta Jon Gonzalez bigarren sailkatu zen 70 kg-tik beherakoetan.

FOTOKIROLA



Pol-Poleko beteranoak Albarracinen izan ziren Pilarikako zubian

Aurreko asteko Pilarikako zubia aprobetxatuz, Pol-Pol Mendizale Taldeko beteranoek lau eguneko irteera egin zuten Albarracineran, Tajo ibaiaren sorlekura. Teruel aldera 50 laguneko taldea joan zen eta Albarracingo aterpetxean ostatu hartu ondoren, hiru mendi irteera egin zituzten, Pozondonera lehena, Guadaliviari eta Frias de Albarracineran bigarrena eta Arcos de Salinas, Javalambre eta Camarena de la Sierrara azkena. Giroa ere lagun izan zuten eta ederki asko ibili ziren mendizale beteranoak. Itzulerako bidaian, Camalocha eta Monasterio de Piedra delakoa bisitatu zituzten. Denboraldia bukatzeko, urteko azken irteera iragarri dute azaroaren 22rako. Lizarraga eta Urdiain aldera egun guztiko irteera egingo dute orduan.

LABEGARAIETAKO FUTBITOTXAPELKETA

ZAPATUAN, BARRUAN

09:30: Komando Piperrak-Egurre. Agirreb.
10:30: Agirrebeña-Arrano. Egurre
19:30: Brescia-Cosa Nostra. Irubide
20:30: Irubide-Pagomendi. Brescia


DOMEKAN, BARRUAN

09:30: SDTNT-Txipiron. Mongatxurak
10:30: Mongatxurak-A Ze Flaxa. Txipiron
11:30: De Resaka-Errotagain. A Ze Flaxa
17:00: PDS-Belengua. Kalaveras
18:00: Kalaveras-Pirulotarrak. PDS
19:00: All Blacks-KMP. Canalejas
20:00: Fac-Canalejas. KMP


ARREGI AROZTEGIA



PVCzko
LEIHOAK



Zatoz gure
erakusketa handitu
eta berritura.
Bidekurutzeta
38an gaude.



SUKALDEAK

ATEAK ETA
LEIHOAK



HORMA ARMAIRUAK

BAITA ERE: Tarimak, parketak • Gradulux pertsiana eta kortina graduagarriak • Flex koltxoiak • Mota guztietako arozlanak

Tailerra Urteaga, 20. 943 76 11 73 Erakusketa Bidekurutzeta, 38. 943 76 31 03



Urte bukaera arteko harpidetza.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelenean, aste bukaera osoa

Harpidedun egiteko:
902 36 38 51
Asteleneetik egubakoitzera,
09:00etatik 21:00etara.



Gehiago eta hobeto programaren barruan Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak argitaratua. 38. alia

IEPA LAGUNOK!

Zer moduz zabizte? Gustau jatzuen Apatxiren aurreko alia? Gaurkuan kontu xeble bat ekarri dotsuet. Ia zuen gustukua dan!!



URREZKO ARAUAK

- Txakur haura ez zebillenez bake billa.
- Ostiko bat emon eta...



- ~~Ia ke txakur haura bake billa ez zebillen.~~
- ~~Ostiko bat jo eta...~~

IPUIÑA 'Pernando Amezketarra'

Pernando Amezketarra pertsonaje ezaguna dogu Euskal Herri osuan. Urte askotan zihar hainbat gora behera izan ditu eta aste honetan bere pasadizo bat ekarriko dogu gogora, "Zakurraren muturra", hain zuzen be.

Bazihoan Pernando ttipi-ttapa Amezketako kalietan zihar. Aurrez aurre ondo jantzitako gizon dotore bat zetorren bere txakurtxuarekin. Pernandori ez jakon asko gustau gizon haren itxuria.

Txakur haura ez zebillenez bake billa, Pernandoren praka barrenak ongi usaindu ondoren, ezkerreko hankia jaso eta txiza egi-tten hasi zan.



Pernandok, orduan ostiko bat emon zotsan txakurrari eta zera esan zotsan gizonari:

-Juan zaittezte hemendik! Zure txakurraren mutur horrekin! Gizon dotore hark ez zittuan oso ondo hartu Pernandoren berbak eta berba gogor eta zittalez mehatxatu zeban. Zer ez ete zotsan esan Pernandori!

Pernandok gizon dotore hari kasu handirik egin ez zotsanez, aurrera jarraitu zeban bere bidean. Baiña gizon kokor haura ez zan nunbait lasai geratu eta auzittan sartu zeban Pernando.

Astebete baiño lehen, iskribauaren aurrera azaltzeko deiza iritsi jakon. Pernando ez zan gehixegi estutu eta esandako orduan han agertu zan iskribauaren buleguan lasai asko. Han zeguan beste aberats zittala be. "Baietz nik lotsagabe hori eskarmentu bat emon!" pentsau zeban aberatsak berekiko.

- Beno, zertaz salatzen dozu gizon hau?- galdetu zotsan iskribauak aberatsari.

- Kalian nindoala gizon honek burla egin zotan.- erantzun zeban.

- Nik zuri burla? Egon zaittez isilik, gizona. Kontuz zer esaten dozun gero!

- Bai jauna, nere txakurraren muturra neukala esan zotazun. Ez zara gogoratzen?

- Eta gezurra esan notsun, ba?- erantzun zotsan Pernandok.- Hori baiño gizur handixagorik entzungo ziñuen iñoiz.



Eskribaua be aberatsaren alde zeguenez, Pernandori arrazoia kendu nahi zotsan eta honela zuzendu zan berarengana:

- Eta zergaittik esan jatzu hori gizonari? Noiz ikasi bihar dozu lagun hurkoa errespetatzen?

Pernandok be mingaiñean ez zeukan erdoilik eta bi aldiz pentsatu gabe, esan zotsan eskribauari:

- Galdera bat egin bihar dotsut, iskribau jauna. Zeiñena da gizon horrek zeroian txakurtxua?

- Zeiñena izango da ba, nagusixarena. Erantzun zotsan eskribauak.

- Eta txakur horren muturra? - galde-tu zotsan berriro Pernandok.

- Txakurra beria bada, txakur horren muturra be nagusixarena izango da.

- Horixe esan notsan ba nik. Nagusixak txakurraren muturra zeukala.

Aberatsa eta eskribaua mutu geratu ziren eta honela irabazi zeban auzixa Pernandok.



ELKARRIZKETA

LANDER JUARISTI/TXAPA IRRATIKO KIDEA

“Iazko ildoari jarraituz, irratsaio musikalak izango dira nagusi”

IRATI AGIRREAZALDEGI

Egubakoitzean aurkeztu zuen Txapa Irratiak hasi berri duen denboraldiko programazioa. Aurten, gainera, 20 urte beteko ditu Txapak azaroaren 20an. Urtemugari eta programazioari buruz egin dugu berba bertako kide Lander Juaristirekin.

Egubakoitzean aurkeztu zenuen programazio berria. Nola-koa izan zen aurkezpen jaia?

Kanpora begira baino gehiago, irratiaren inguruan gabiltzandako jai txiki bat izan zen. Azkairer Peloxen abestiak programazioaren aurkezpenarekin tartekatuta genituen eta bat baino gehiago taula gainera igo zen abestiak kantatzera.

Aurtengo programazioaren baitan zenbat irratsaio daude?

Denboraldia 27 irratsaioekin hasi dugu, baina gerora programak gehitzea espero dugu, asmo eta ideia berriak ez baitira falta horretarako.

Zein saio dira berriak?

Bi saio musikaren gainekoak izango dira. Esaterako, iaz *Txapa bakterio factory* egiten zuten hainbat lagunek orain beste irratsaio bat egingo dute eta musikaren gaineko beste saio berri bat ere egingo da. Bestalde, bi neska zapatu goizetan *Herritik bertan* irratsaioa egingo dute Bergarako kontuekin. *Programa iluna* ere irratsaio berria da, magazin erakoa.


Zein eratako irratsaioak dira nagusi?

Iazko ildoari jarraituz, irratsaio asko musikalak dira. Hala ere, badira bestelako edukiak dituzten saioak: literaturaren gainekoak izango da *Jai house rock*; zinema, musika eta literaturari buruzkoa *Itxi atia barrutik*; iaz *Mundura begira* zena aurten *Kantxatka* izango da eta hainbat berrikuntza edukiko ditu...

Ohiko programazioaz gain, irratsaio bereziak ere egiten dituzue, ezta?

Bai, badira kolektibo modura egiten ditugun saioak. Esaterako, antzerki mostraren jarraipena egin genuen. Bestalde, Arrosa irrati sareko partaide da Txapa, eta horri etekina atera nahi diogu. Irrati libreen arteko sarea da. Interneten zerbitzari bat dauka eta zazpi irrati gaude konektatuta. Hala ere, urte amaierarako 14 izatea espero dugu. Irratien arteko elkartrukea egiten dugu, horretarako zerbitzari horretan gure saioak ipiniz. Honela, gure programak emiti daitezke iparraldeko irrati batean eta eurenak gurean.

“20. urtemuga ospatzeko, Txapan jardundako lagunekin bazkaria egingo dugu”



I.A.

Zenbat jendeke diharduzue gaur egun Txapan?

Gutxieneko baldintza batzuk betez gero, eta irratiaren funtzionamendua egokia izan dadin lan eginez gero, edozeinek izan dezake irratsaio bat Txapan. Gaur egun, 60 lagun inguru gara irratsaioak egiten ditugunak. Baina bileretara 15 lagun baino ez gara joaten.

Azaroan 20 urte beteko ditu Txapa Irratiak.

Urtemuga ospatzeko azaroaren 20ko astean irratsaio zaharrak berreskuratu eta irratiaren gaineko saioak egingo ditugu. Egunean bertan plazan bazkaria egingo da, eta irratiak pasatuko jendea elkartzea da gure asmoa. Gero, herriko taldeekin kontzertua izango da.

Herriko lau taldek jardungo dute gaur hasiko den Danbaka musika lehiaketan

I.A.

Guztira 43 talde aurkeztu dira Danbaka musika lehiaketara, horien artean Bergarakoak hama-bi. Baina epaimahaikoek 23 laga dituzte kanpoan, eta aurrera egingo dutenetatik lau dira bergarakoak edo Bergarako partaideak dituztenak: Dixie 900, Ostiada Oi!, Supercools eta Stukas.

Dixie 900 taldea zazpi lagunek osatzen dute eta pop-rock kantuek egiten dituzte, gaztelaniaz.

Ostiada Oi! taldean Bergarako, Elgetako eta Arrasateko bost lagunek dihardute, eta punk, ska eta oi! musika egiten dute.

Lau mutilek osatzen dute Stukas taldea, guztiak aurrez beste

talde batzuetan jardundakoak. rock-and-roll eta punk musika egiten dituzte.

Azkenik, Supercooleko lau kideak hardcore-punk musikarekin joango dira lehiaketara.

LEHEN KONTZERTUAK GAUR

Lehen emanaldia gaur izango da Elgetako Espaloia kafe antzokian. Amonal, Matxura, Potemkin eta Jim TNTk jardungo dute.

Bi sari izango dira lehiaketan. Lehena, epaimahaiaren erabakiz emana: diskoa grabatzea. Bigarrena, ikus-entzuleek SMS bidezko botoekin emango dutena: bateria bat eta Gasteizko Carrion dendan musika tresnetan gastatzeko 1.000 euro.



Stukas taldea da aukeratutakoetako bat.

ARTXIBOA

KULTURAPILULAK

Hiru euskal talde zapatu gauean gaztetxean

Gasteizko Neubat taldea eta Oñatiko Sharon Stoner eta Potemkin izango dira bihar, zapatua, gaztetxeko taula gainean. Kontzertua 22:30ean hasiko da eta sartzeko hiru euro ordaindu beharko dira. Gasteiztarrek *Dantzaldiko erreginak* euren lehen laneko kantu gogorrak, melodiotsuak eta aldi berean freskoak eskainiko dituzte. Oñatiarrak, berriz, euren stoner eta rock doinuekin etorriko dira.

Rock kontzertua zapatu gauean Jam aretoan

Bihar, urriak 23, rock kontzertua izango da Jam aretoan. King Khan & His Sensational Shrines eta Viva l'American Death Ray Music taldeen rock doinuek izango dira nagusi eta The Foralettes taldeak ere jardungo du. Lehenengoek iraupen luzeko lana aurkeztuko dute eta eurekin dantzariak ere izango dira taula gainean; bigarrenek hirugarren diskoko doinuek ekarriko dituzte. Ateak 22:00etan zabalduko dituzte eta sarrera 15 euro izango da.

Argazki erakusketa eta kontzertua Pol-Polen

Azurren argazkiak izango dira ikusgai hilabete amaierara arte Pol-Polen. Astelehenean eguenera bitartean 19:00etatik 21:00etara; zapatuetan, berriz, 18:00etatik 20:30era. Bergara eta inguruko txokoak ikusi ahal izango dira argazkietan. Bestalde, gaur, egubakoitza, Eneko Garmendia bakarlarri hernaniarraren kontzertua izango da Pol-Pol tabernan 23:00etan. Berak sortutako euskal kantak abestuko ditu.

Bingen de Pedrorren margo erakusketa Arrasaten ikusgai

Bingen de Pedro margolari bergararrak erakusketa ipini du Arrasaten, Maalako Erribalean dagoen, Arregi markoztatze dendan. Estilo figuratibo modernoaren erabiliz egin ditu ikusgai jarri dituen hama-bost lanak; guztiak teknika akrilikoarekin margotutak dira. Erakusketa ikusi nahi dutenek azaroaren 19ra bitartean izango dute aukera. De Pedro hainbat sari jasotakoa da eta taldean zein bakarrik erakusketa asko egin ditu bere margolanekin.

Ekitaldi ugari erretiratuen Kultura Hamabostaldian

IRATI AGIRREAZALDEGI

Hasi da Bergarako eta Antzuolako erretiratuen elkarteek antolatutako Kultura Hamabostaldia, eta urriaren 30era bitartean ekintzak egingo dituzte.

Astelehenean aurkeztu zuten aurtengo Hamabostaldia iragartzeko duen kartela. San Joxepeko marrazketa taldekoek egin dute, euren egoitzaren sarreran dagoen monolitoan oinarrituta.

Kartela aurkeztearekin batera eskularen erakusketa zabaldu zuten Juan Iturralde elkartearen presidentek. Bertan, aurreko urteetan saritutako kartelak ikus daitezke, baita San Joxepe elkartearen ikastaroetan egindako eskulana ere: zeramikak, argazkiak, margolanak, tailak, gantxilloa, gurutze puntua... Erakusketa aste honetan egon da ikusgai.

Hamabostaldiaren hasiera ekitaldi ofiziala, ordea, martitzenean egin zuten, Bergara eta Antzuolako udaletako ordezkariek bertan zirela.

Hasiera ekitaldiaren ostean, Prospektiker enpresako Ane Bustinuik biztanleria zahartzearen ondorioei buruz hitzaldia egin zuten.



Aste honetan eskularen erakusketa izan da ikusgai San Joxepe elkartearen egoitzan.

VIII. KULTUR HAMABOSTALDIA/ VIII QUINCENA CULTURAL
BERGARA ETA ANTZUOLAKO JUBILATUEN
ELKARTEEK ANTOLATUA

ORGANIZADO POR LAS ASOCIACIONES DE JUBILADOS
DE BERGARA Y ANTZUOLA



2004 ko
Urriaren
18tik 30 era

Del 18 al 30
de Octubre
de 2004

Gizartearen eboluzioa eta joerak

BERRIGARA

Kultura Hamabostaldia iragartzeko duen kartela.

Asteon, jai giroko ekitaldi ere izan dute bertsolari eta dantzarien eskutik, eta merienda eta dantzaldia ere egin dituzte.

EKITALDI GEHIAGO

Gaur, egubakoitza, 19:30ean gazteek eta zaharrek elkarrekin musika emanaldia eskainiko dute

**Aurtengo Kultura
Hamabostaldiko
kartela marrazketa
taldekoek egin dute**

Mariaren Lagundia elizan. Bertan izango dira: San Joxepeko abesbatza, Musika eskolako abesbatza eta akordeoi orkestra eta Migel Sagastume soinu jotzailea.

Zapatuan, 16:00etan xake txapelketa izango da San Joxepen eta astelehen arratsalderako Antzuolara bisita dago iragarrita.

Martitzenean eta eguenean bi hitzaldi izango dira, biak 19:30ean, Migel Altuna institutuko aretoan. Lehena teknologia berrien gainekoa izango da eta bigarrena, berriz, medikuntza eta osasun arloko aurrerapenei buruzkoa.

Erretiratuek, beraz, badaukate non aukeratua.



San Joxepekoak Galizian izan ziren

San Joxepe erretiratuen elkarteak antolatuta 100 lagun inguruk Galiziarra egin zuten astebeteko bidaia. Eguraldi ona lagun zutela Rias Baixas eskualde inguruko hainbat txokotara egin zuten bisita, eta Portugalera ere joan ziren egun batean. Behin Galiziarra urte santuan joanda, ezin Santiago ikusi gabe handik bueltatu, eta hiriburura ere egin zuten osteratxoa. Argazkian ikus daitekeen bezala, Galizian oso ohi-koak diren garaiak ere ikusi zituzten bergararrek.

LABUR

San Millan de la Cogollara irteera eguztenean

San Joxepe erretiratuen elkarteak, Kultura Hamabostaldiaren barruan, San Millan de la Cogollara irteera antolatu du. Txangoa urriaren 27an izango da eta elkartetik esan digutenez bi autobusetan joango dira bertara. Goizean, 08:00etan irten eta Yuso eta Suso monasterioetan bisita egingo dute. San Millan de la Cogollan bazkaldu ostean, arratsaldean Santo Domingo bisitatzeko aukera izango dute erretiratuek.

Idoia Iriarte Irureta

Dentista

Artekale 1 - 1C Bergara Tel.: 943 76 01 65

• Odontologia orokorra

• Asegurua: LAGUN-ARO

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKORBEREZIBAR

Bi atari hauek kale berean daude. Non?

BERGARAROSPETSUAK

Frai Jose Antonio Ugarte

KOLDO PEREIRA


Angiozarren jaio zen, 1860an, eta 1883an apaiz sartu zen frantziskotarren ordenan. Predikari trebea izan zen, eta euskarazko idazle bikaina. Garrantziko ardurak izan zituen bere ordenan: bikario eta frantziskotarren komisario Kantabriako probintzian, besteak beste.

Gauzak antolatzeko sen handia zuen, eta, horrela, Santiago, Madril eta Erromako nazioarteko biltzarretan izan zen. Euskal Herrian, toki askotako biltzarrak antolatu zituen. Izen bereko argialetxearen oinarria izan zen Arantzazu inprimategia sortu zuen, beste hainbatekin batera.

Euskara erabili zuen bai apostolutza-lanetan, bai predikuetan, eta baita inprimategian ere. Euskarazko lan ugari idatzi zituen, guztiak ere frantziskotarren hirugarren ordenari buruzkoak: *Lezoko peregrinaziorako kantak* (1900); *Aita San Franciscoren irugarren goentzat eleiz kantak* (1919); eta *Zeruko mana gozoa* (1924), arrakasta handia izan zuena.

Euskarazko aldizkari bat argitaratu zuen Zarautzen bere hirugarren darrrentzat: *Irugarren goen irakaslea*. Zarautzen hil zen, 1935ean.

Euskara erabili zuen bai apostolutza-lanetan, bai predikuetan, eta baita inprimategian ere



Angiozar auzoa.

GALDEDEBALDE

1. Zein urtetan sortu zen Bergarako Udal Musika Banda?

- A/ 1907an.
- B/ 1807an.
- C/ 1832an.

2. Zeinek irabazi ditu Kirol Argazk Lehiaketako sari nagusiak?

- A/ Benito Canterok.
- B/ Juan Antonio Untzurrunzagak.
- C/ Javier P. Fernandezek.

3. Bergarako talde hauetatik zein da Danbaka musika lehiaketan parte hartuko duena?

- A/ Ibaiak.
- B/ Supercools.
- C/ Cool Panic.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

JONE SANTAMARIArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Jone! Aurreko asteko galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: **Narbaiza-Bolu baserría**. / Galde debalde: 1-A, 2-B, 3-B.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Scottex komuneko papera

4 erroilu

1€

166 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



Dixula

BOKATAK DAUZKAGU

Barrenkalea 32
BERGARA
Tel.: 943 76 44 95

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA



JAUJA KIROLAK

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

Samadhi Yoga



• ERLAXAZIO IKASTAROA
Erlaxatzen ikasteko Schultz eta Jacobsonen metodoak.

Ostiraletan: 20:15etik 21:15era
Hasiera: azaroaren 5ean

Masterreka 13, behea • Tel.: 639 23 57 53 / 943 76 11 38

ERRETRATUZAHARRA

BERGARA

Nesken
saskibaloitza
taldea, 1989

Bergara KEko saskibaloitza sailak nesken talde bakarra du aurtengo denboraldirako, kadete mailakoa, hain zuzen ere. 1977. urtean saskibaloitza saila sortu zenetik izan dira bai nesken taldeak. Adibide gisa, albon duzuen gazte mailako taldea.

Erretratua 1989koa da, eta esan bezala, gazte mailan aritu zen taldea, Iñaki Martínez entrenatzailearen aginduetara. Taldeak emaitza onak lortu zituen. Argazkian azaltzen diren jokalarien aurpegian ere antzematen da egun hartan partidua irabazi egin zutela. Izan ere, 1989an Gipuzkoako kopa irabazi zuten bergarrek, finalean Hondarribiari nagusituta. Finala Donostian jokatu zen, Bidebietan, eta bergarrek txapeldunen kopa ekarri zuten. Erretratua finalaren ondoren ateratakoa da, eta argi dago nekea ez dela horren pisutsua irabazi eta gero.

Hauek dituzue argazkian azaltzen diren jokalarien izenak, ezkerretik eskumara:

Zutik: Sonia Sanchez, Amaia Garitano, Jaione Loiti, Laura Beristain, Iñaki Martínez, Amaia Epelde eta Maria Romera.

Makurtuta: Patxi Alzas, Iñigo Pizarro, Josu Gantxegi (mutikoa), Maider Gantxegi, Eva Alzas, Amaia Agirrezabal eta Garaine Baleztena.



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

Argazkia: BKEko artxiboa.

SANTOS



TIEN 21

Etxetresna elektrikoak
eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

AZPEITXI

Jatetxea

Aranerreka 13 behe. Bergara
943 76 55 00

OGIZUN

koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

JOXAN
ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29



Silvestre Muñoz, s.l.
pinturak

610 25 99 82
610 25 40 37
943 76 24 11
Amillaga 1, 10 pabilioia.
20570 BERGARA

Pintura-lanak
orokorrean
•
Pintura industrialak
•
Zoru arinak:
sintasolak, moketak...



Urteaga 9
BERGARA
Tf. 943 76 18 45

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004eko urriaren 22a / 219. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Lasterkaldiaren irteerara joateko autobusa antolatu du Udalak

AINTZANE IRIZAR

Datorren egubakoitzean, hilak 29, hasiko den Lasterkaldira ia dena prest dute antolatzaileek. Aiherrara joateko Udalak jarri duen autobuserako eta zapatuan Udal Pilotalekuan egingo den herri bazkarirako izena emateko epea dagoeneko zabalik dago.

Egubakoitzean, hilak 29, Aiherran hasi eta hurrengo egunean, zapatua, iritsiko da Lasterkaldia Antzuolara. 20:00etan irtengo dira lehenengo korrikalariak Aiherratik; baina, ekitaldiak 18:00etan hasiko dituzte; txalapartariak, joaldunak eta eskolako umeen kantu saioa izango da ordu horretan. 19:30ean, senidetzearen sinatze ekitaldia egingo dute herri bietako udal ordezkariak.

Kilometro zehar, korrikalariak lekukoa pasatuko diote bata besteari; Joseba Gastiainek egin du lekuko hori. Aiherrako ume batek eta Antzuolako pertsona heldu batek eramango dute lekukoa lehenengo kilometroan. Azkenekoan, berriz, Antzuolako ume batek eta Aiherrako nagusi batek. Oraindik ez dute zehaztu zeintzuk izango diren lau lagun horiek. Lekukoak idatzi bat ekarriko du barruan, eta Antzuolan irakurriko dute, Lasterkaldia amaitzen denean.

AUTOBUSA ETA HERRI BAZKARIA

Aiherrara joateko autobusa antolatu du Udalak. 16:00etan irtengo da Sagastin, eta 21:00etan itzuliko da. Joan nahi dutenek hilaren 25era arte dute izena emateko aukera, udaletxean eta liburutegian. Doan izango da autobusa. Zapatuan, berriz, herri bazkaria egongo da frontoian; txartelak salgai daude herriko tabernetan, udaletxean eta liburutegian, hilaren 25era arte. Nagusiek 10 euro ordaindu beharko dute; 12 urtetik beherakoek, berriz, 5 euro.

Bestalde, aipatzekoa da kamisetak egin dituztela antolatzaileek. Bederatzi eurotan daude salgai, udaletxean eta liburutegian. Gaur, egubakoitza eta bihar Zurratègin jarriko dituzte salgai, 18:00etatik 20:00etara.



Astehenean, hilak 18, Baionan egin zuten prentsaurrekoa Aiherrako eta Antzuolako ordezkariak.

KORRIKALARIAK PREST

Lasterkaldiak 150 kilometro inguru izango ditu; antolatzaileen esanetan, dagoeneko antolatuta dute kilometro bakoitza zeinek egingo duen. Baina, taldeak eginda dituzten arren, oraindik baduzue parte hartzeko aukera. Korri-

ka eginez parte hartu nahi baduzue, udaletxera jo dezakezue eta Amaia Zabaleta kirol teknikariarekin berba egin. Antolatzaileek nahi dutena da ahalik eta herritar gehienek parte hartzea datorren asteburuko ekitaldian. Gainera, kontuan hartu eza-

zue kilometro bakoitza zazpi minutuan egingo dutela, ia edozeinek egiteko moduko martxan.

Bukatzeko, aipatzekoa da ospakizun hauek antolatzeko eraturako batzordean herriko elkarre eta talde gehienek eta herritar askok parte hartu dutela.

Egitaraua

Urriak 28, eguna

- 19:00: Daniel Landart-en berbaldea, Olanan.

Urriak 29, egubakoitza

- 16:00: Aiherrara joateko autobusa, Sagastin.
- 18:00: Aiherran, txalapartariak, joaldunak eta herriko eskolako umeen kantu saioa.
- 19:30: Aiherrako eta Antzuolako udalen arteko hitzarmena sinatzea.
- 20:00: Lasterkaldiaren irteera.

Urriak 30, zapatua

- 11:00: Lasterkaldia Antzuolara iritsiko da.

Azkeneko kilometroa, San Blasetik Herriko Plazara, aihertarrek eta antzuolarrek elkarrekin egingo dute. Ondoren, lekukoak barruan dakarren agiria irakurriko dute.

- 14:00: Herri bazkaria, frontoian. Bazkalostean, dantzak, bertsoak, trikitalariak eta kantu saioa Beñat Elizondo eta bere taldearekin.

- 19:00: Gaztaina erre jana, Herriko Plazan.

Urriak 30 eta 31

- 12:00-14:00 eta 18:30-20:00: Senidetzearen gaineko erakusketa, Olanen.

LABUR

Herriko pilota txapelketan izena emateko aukera

Olalde elkarteak, urteroko moduan, Herri Mailako Eskuz Binakako Pilota Txapelketa antolatu du. Izena emateko epea urriaren 15era arte zegoen zabalik, baina, epe hori luzatzea erabaki dute. Dimekan, hilak 24, izango duzue izena emateko azkeneko aukera. Horretarako, Josu Zabalo, Juan Simon Aristi, Balentin Zabalo edo Juan Tomas Erostegirengana jo dezakezue.

Argazkiak aurkezteko aukera urriaren 29ra arte

Udalak antolatutako argazki lehiaketara lanak aurkezteko epea datorren asteko egubakoitzean, hilak 29, bukatuko da. Argazkien gaia librea da eta edozein herritarrek du parte hartzeko aukera.

Aurten, gainera, berrikuntza batekin datorkigu lehiaketa; argazkiak e-postaz bidaltzeko aukera eskaintzen digute, honako helbidera: kultura@antzuola.net

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA

Urriak 23
12:00: Antzuola-Elgoibar (Neskak)
16:30: Antzuola-Eibartarrak (Gazteak)

PILOTA

Urriak 23 (Gipuzkoako Txap.)
17:30: Olalde-Guretxeru (Kadeteak)

EMAITZAK

FUTBOLA

Amara Berri 3 Antzuola 1 (Gazteak)
Antzuola 3 Ikasberri 4 (Kadeteak)
Bergara 3 Antzuola 0 (Neskak)

PILOTA

Gipuzkoako Kluben Arteko Txap.
Olalde-Eskoriatza (eskuz nag.) - 18-22
Añorga-Olalde (eskuz kadeteak) - 22-5

HIRIGINTZA

Zirkulazioaren noranzkoak aldatu egingo dituzte datozen asteotan

AINZANE IRIZAR

Aurreko astetik dihardute herri barruko lurreko bide seinaleak margotzen. Zutikako zirkulazio seinaleak ere jarriko dituzte. Lan horiek amaitzen dituztenean, aldaketa handiak egingo dituzte herri barruko zirkulazioan; noranzkoak, hain zuzen ere, aldatuko dituzte.

Aldaketa handiak egingo dituzte datozen asteotan herri barruko zirkulazioan. Horretarako, eta gaur egun dauden seinaleak berri- tze, hainbat lan egiten dihardute aurreko astetik: lurreko bide seinaleak margotzen hasi ziren aurreko astean, eta zutikako sei- nale berriak ere jarriko dituzte.

Aldaketa nabarmenena izan- go da Kalebarrenen, Santiago-

neko kantoian, hasi eta Kalegoi- raino noranzko bakarra ezarri- ko dutela, behetik gorako noranz- koa, hain justu. Hortaz, Kalegoi- tik behera joateko, orain bezala, Sagasti auzotik pasatu beharko dugu. Herriko Plazara iristeko aukera bakarra, berriz, Kaleba- rrendik pasatzea izango da. Izan ere, Olanan etxe ondotik behera joaterik ere ez dugu izango; bide hori gora joateko bakarrik era- bili ahal izango dugu.

Bestalde, Sagastitik Kalegoi- rako bidea zabaldu egingo dute; orain arte, kontrako noranzkoan bakarrik egon da zabalik bide hori. Beste aldaketa batzuk ere egingo dituzte: besteak beste, frontoitik Kalebarrenerako bidea erabat itxiko dute eta frontoiko pasealekuak eskola alderako noranzkoa bakarrik izango du.



Kalebarrenetik Kalegoiraino, behetik gorako noranzkoa bakarrik izango du bideak.

LABUR

Tortilla lehiaketa azarora atzeratzea erabaki dute

Bihar, zapatua, egitekoak ziren tortilla lehiaketa. Azke- nean, baina, ekitaldi hori ber- tan behera lagatzea erabaki dute, hainbat arrazoi direla eta. Udaleko arduradunek jakinarazi digutenez, dato- rren hilabeteen, azaroan, egin- go dute lehiaketa hori.

Aitor Mendizabal pilotaria Burlatako txapelketan

Aitor Mendizabalek, Olalde elkarteko kadete mailako pilo- tariak, Burlatako pilota txape- lketara jokatzeko dihardu. Oñatiko pilotari bat du biko- te kide txapelketa horretan. Aurreko asteburuan jokatu zuten partidua irabazi egin zuten.

ERRETIRATUAK

Hamabostaldi Kulturalaren barruan, ibilaldia Antzuolan

AINZANE IRIZAR

Antzuolako eta Bergarako erretiratuen elkarteek, urtero bezala, Hamabostaldi Kulturala antolatu dute aurten ere. Oraingo astean ekin diete ekitaldiei, eta urriaren 30ean, amaituko da kultur ekitaldi sorta, herri bazkari batekin.

Gizartearen joerak eta bilakaera. Etorkizuna eta edadetuak da aurtengo hamabostaldiaren leloa. Horren inguruan, ekitaldi ugari antolatu dute erretiratuek; aste- lehenean, hilak 18, hasi zuten hamabostaldia eta hilaren 30ean amaituko dute. Gaur, egubakoitza, gazteen eta zaharren arteko musika emanaldia izango dugu, 19:30ean, Mariaren Lagundiko elizan. Hantxe parte hartuko dute

San Joxepeko abesbatzak; Ber- garako Musika Eskolako Abes- batzak eta Akordeoi Orkestrak eta Migel Sagastume soinujoalek.

Bihar, zapatua, belaunaldien arteko xake txapelketa jokatu- ko dute, 16:00etan, San Joxepe elkar- tean. Datorren asteko martitze- nean, hilak 26, teknologia berrie- gure bizimoduan duten eragina- ren gainean berbaldea egingo du Gorka Eizmendik, Fatronik fun- dazioko ingeniariak. Migel Altu- na institutuko areto nagusian izango da berbaldea, 19:30ean.

Eguaztenean, urriak 27, irte- era egingo dute erretiratuek; Errioxara joango dira, San Millan de la Cogollara, hain zuzen ere. Yuso eta Suso monasterioak bisita- tuko dituzte, besteak beste.


Hurrengo egunean, hilak 28, beste berbaldi bat izango dute,

Medikuntza eta osasun arloko aurrerapenak: bizi kalitatearen bermea al dira? izenburupean. Xabier Ibarzabal medikuak egin- go du berba, Migel Altuna insti- tutuko areto nagusian, 19:30ean.

Urriaren 29an, egubakoitza, Antzuolako eta Bergarako ikas- leek belaunaldien arteko harre- manen gainean egindako lanak aurkeztuko dituzte. Urriaren 30ean, zapatua, amaituko dute aurtengo hamabostaldia, herri bazkari batekin.

ANTZUOLAN ERE HAINBAT EKITALDI

Oraingo asteburuan Antzuola eta Bergarako erretiratuek egindako eskulan eta margolanen erakus- keta egongo da Olanan etxean. Astelehenean, berriz, hilak 25, Antzuolan bisita gidatua egingo dute alde zaharrean eta berrian.



Taxi gidari berria dugu herrian

Gorka Garai eskoriatzarra dugu herriko taxi gidari berria. Orain dela hilabete inguru hasi zen Antzuolan lanean eta gustura dabil, kontatu digunez. Jesus Mari Fernandezek postua libre laga zuen duela gutxi eta haren tokia hartu du Gorkak. Horrela, bi taxi ditugu berriro herrian; Gorkarekin batera, Antonio Fernandez da herriko beste taxi gidaria./A.I.

DANBAKA))))))

DEBAGOIENeko I. MUSIKA LEHIAKETA

SMS MEZUAK

Gustukoen duzun talde, bakarlari edo abestiari lagunduz, zuk ere saria irabazi!

Mezuak bidaltzeko jarri:

DANBAKA (tartea) PARTAIDEAREN IZENA eta bidali 7744 zenbakira.

Mezu bakoitzaren kostua 0,9+BEZa.



Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2004eko urriaren 22a / 203. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegia • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Elgeta Auzolanean plataformak orain arteko dinamika jarraituko du Udalean

IRATI AGIRREAZALDEGI

Elgeta Auzolanean plataformak deituta herri batzarra izan zen barikuan. Udaleko gorabeherak eta egoera politikoa izan zituzten hizketarako gai. Izan ere, hauteskundearen ostean, herritarren botoen arabera zegokion ordezkariak gabe jarraitzen du plataformak.

Udaleko gorabeherak eta egungo egoera politikoa gai hartuta, herri batzarrerako dei egin zuen Elgeta Auzolanean plataformak. Joan zen barikuan egin zen bilera eta 25 lagun inguru izan ziren.

Elgeta Auzolanean plataformakoak pozik azaldu ziren jasotako erantzunarekin, jendeak bilerara joateaz gain, bertan parte hartu baitzuen iritzia emanaz.

DAGOKION ZINEGOTZIA ESKATU

Edurne Alberdi Elgeta Auzolanean plataformako zerrendaburuak adierazi digunez, "orain arteko dinamika berarekin jarraituko dugu Udalean. Bilkuretan mozioak aurkeztuko ditugu eta bertan egongo gara gure iritzia emateko; batzordeetan ere parte hartuko dugu". Hala ere, "herri-



ARTXIBOA

Azken udal hauteskundeetan Elgeta Auzolanean plataformaren izenean honako talde hau aurkeztu zen, Edurne Alberdi buru zuela.

tarren nahia errespetatuz dagokigun zinegotzia eskatzen jarraituko dugu, eta aldarrikapen hori eginaz mozio bat aurkeztu dugu Udalean", esan digu Alberdik.

ARALARREN PROPOSAMENA

Aralar alderdiak, bere iraileko berripaperean, proposamena egin zuen Auzolanean-ek Udaleko erabaki-guneetan parte hartzeko.

Aralarren esanetan, "errespetatu egin behar da hauteskundeetan herritarrek esandakoa. Ondorioz, Elgeta Auzolanean plataformari zinegotzi bat dagokio. Legeak

"Auzolanean-ekoek osoko bilkuretan eta batzordeetan parte hartuko dute, orain artean bezala"

Udalaren gainean inolako neurririk hartu ez dezan herri batzarra sortzea proposatzen dugu".

Aralarrek esandakoaren arabera, herri batzar horretan alderdi guztiek hartuko lukete parte botoarekin. Ondoren, bertan lortutako akordioak batzar "ofizialak" onartu beharko lituzke.

Elgeta Auzolanean-ek, ordea, Lizartzan egin zen saiakeraren antzerako bat eginez, EAJ-EAkoek euren zinegotzi bat utzi eta leku hori Edurne Alberdik hartu behar lukeela uste dute. Aukera hau Aralarrek proposatutakoa baino egokiagoa da euren esanetan. "Baina horretarako EAJ-EAK erakutsi behar du borondatea".

Gai horren gainean, alkateak ez du inolako adierazpenik egin. Bere iritziz, "horri buruz esan beharreko guztia esana dago".

MUSIKA

Matxura, Izas eta Ostiada Oi! Danbaka musika lehiaketan

IRATI AGIRREAZALDEGI

Gaur ipiniko dute abian Danbaka musika lehiaketa. Aurkeztutako 43 taldeen artean hiru ziren Elgetakoak eta hirurek egin dute aurrera. Lehen emanaldian Ostiada Oi! taldekoek jardungo dute.

Danbaka, Debagoieneko musika lehiaketa, gaur gauean hasiko da. Espaloian izango dira emanaldiak barikuetan eta beste hainbat talderekin batera Elgetako

hiruk jardungo dute lehiaketa: Izas, Ostiada Oi! eta Matxura.


Gaur, urriak 22, Oñatiko Potemkin eta Amonal, Arrasateko Jim TNT eta Elgetako Matxura taldeek jardungo dute, 22:30ean hasita. Elgeta eta Sorluzeko hiru mutilek osatu zuten Matxura taldea orain dela urtebete, eta pop-rock musika egiten dute, euskaraz.

BAKARLARI BAT

Datorren barikuan ez da kontzerturik izango, baina hurren-

goan, azaroaren 5ean, elgetar bat ikusi ahal izango dugu taula gainean: Izas (Izaskun Ojanguren) 11 urte zituenetik dabil gitarra hartuta kantuan, eta iaz lehen make-ta grabatu zuen pop doinuekin.

Ostiada Oi! da lehiaketan parte hartuko duen Elgetako hirugarren taldea. Elgeta, Arrasate eta Bergarako bost kaskamotzek osatzen dute Ostiada Oi! taldea, eta punk, ska eta oi! doinuak egiten dituzte orain dela hiru urtetik. Haiek abenduaren 3ko emanaldian jardungo dute.



ASTELEHENKO GORRIBARRA

Izaskun Ojangurennek gitarrarekin pop erako kantua abestuko ditu.

AZOKA

Eskola Txikien Jaiaren alde dirua jasotzeko azoka egingo dute

I.A.
Datorren urteko ekainean egingo da Elgetan Eskola Txikien Festa, baina jadanik hasi dira prestakuntza lanetan. Udaletik jakinarazi digutenez, abenduan bigarren eskuko gauzeekin azoka egingo dute, eta jasotako dirua jaiaren antolatzaileendako izango da.

Abenduan bigarren eskuko gauzen azoka egingo dute Elgetan.

Horretarako azaroan zehar jendeak etxean soberan dituen liburu, arropa, jostailu zein bestelakoak eskolara eraman behariko ditu, ondoren azokan salgai ipini mahi izanez gero.

Antolatzaileek salneurria jarriko diete jasotako gauza guztiari abenduan azoka egiten dutenean jendaurrean ipintzeko.

Azokan saldutako gauzeekin ateratako diruaren erdia jabeendako izango da eta beste erdia, berriz, Eskola Txikien Festa antolatzen diharduen batzordeak jasoko du.

GABONETAKO OPARIAK

Azoka txikiarekin, dirua jasotzeaz gain, kontsumismorako joera horren aurkako ekintza bat ere egin nahi dute.

Izan ere, azoka abenduan izanik, jendeari aukera eman nahi diote Gabonetako opariak ere bertan erosteko. Nahiz eta lehen eskukoak ez izan, bila dabilzan hori aurkitzeko modua egon baitaiteke azokan.

Azoka zein egunetan egingo duten oraindik zehazteke dago, baina abenduan izango da.

Egun horretan eskolako umeak izango dira dendariak eta gura-

soak zein gainontzeko elgetarrak erosleak. Honela, herritarrek Eskola Txikien Jaiari laguntzeko modua edukiko dute.

Umeak dendari izango badira, Udaleko ordezkariak ere izango dute zereginik. Izan ere, azokaren aldamenean barra ipiniko dute pintxoekin eta edariekin. Bertan jasotako dirua ere Eskola Txikien Jaiarako izango da.

ARROPA

Azoka, ordea, ez da izango jai horretarako dirua batzeko egingo den ekintza bakarra. Batzorde batek lanean dihardu, eta beste hainbat ekintza ere egingo dituzte.

Udan kamisetak ipini zituzten salgai eta aurki neguko arropak ekarriko dituzte. Bestalde, gaztaina erre egunean ere zerbait egitekoak dira.



Hiru ume bataiatu zituzten domekan

Elgetako elizan hiru ume bataiatu zituzten joan zen domekan: Nerea Canelo, Ander Errasti eta Asier Alkorta. Argazkia elizaren atarian atera zuten, amekin, boloaren ostean. Elgetan oraindik eusten diote bataioen ondoren gozokiak eta txanponak botatzeko ohiturari. Gero guztiak familiarrean egin zuten ospakizuna .I.A.

KIROLAK

Udal zergak eta tasak datorren urtean % 3,2 igotzeko proposamena aurkeztu dute

I.A.
Ordenantza fiskalen eguneratzea izan da asteon Ogasun batzordean landu duten gaietako bat. 2005erako zergak eta tasek KPIren arabera igoera izatea proposatu dute, baina zaborrei dagozkien zergak gehiago egingo dute gora.

Martitzenean Ogasun batzordeak bilera egin zuen, eta beste hainbat gairen artean 2005erako ordenantza fiskalen eguneratzeari buruz jardun zuten.

Kontsumo Prezioen Indizearen (KPI) arabera zergen eta tasen igoera proposatu zuten, %3,2koa izatea, hain zuzen ere. Orain, osoko bilkuran onartu behariko da igoera hori.

Urtero egiten dute gora udal zergek, eta aurten ere horrela egitea da proposamena. Tasak eta zergak gaurkotzean 2002ko irailetik aurtengo irailera bitartean KPIk izan duen igoera hartuko dute kontuan, eta %3,2 igoko lirarteke Elgetaren kasuan. Iaz igoera %2,5 izan zela ikusita, aurtengo igoera handiagoa dela esan genezake.

ZABORRAK

Hala ere, Udaleko zerbitzu guztietan ez da igoera bera aplikatu. Aurten aipatzekoa da zaborrei dagozkien zergak igoera handia izan dezaketela.

Izan ere, zerbitzu hori eskaintzeak eragiten dituen kostuak ez dira betetzen ipinitako zergekin. Beraz, Mankomunitateak eskatuta herri guztietan igoko da tasa.



Zaborren gaineko tasek aparteko igoera izango dute.

LABUR

Pilota txapelketako egutegia adosteko bilera gaur gauean

Federatu gabeko pilotari beterranoen lau t'erdiko txapelketa datorren urriaren 29an hasiko da. Elgetako Udal Pilotalekuan hamabi bikotek jardungo dute, baina oraindik zehazteke dago noiz izango diren partidua. Lehenengo zatian pilotariak bi taldetan banatuko dira eta ondoren, onenek egingo dute aurrera Gabon zahar egunean jokatuko den finalera iritsi arte. Taldeen banaketa eta partiduen egutegia zehazteko jokari guztiak elkartzea komeni da. Horretarako, txapelketaren antolatzaileek bilera batera dei egin diete partaideei. Bilera gaur, barikua, izango da Intxorta elkartearen Batzarraren aurretik, nahi duten pilotariendako afaria egongo da.

BOLINAGA METALAK

SALBADOR 7
ELGETA 20690
GIPUZKOA
TEL: 943 76 80 64
FAX: 943 76 83 01

JAR EZAZU HEMEN ZURE PUBLIZITATEA

Goibekokale

Aperribay, s.l.

Marmoldegi eta granitoak

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21

20690 ELGETA



Opel. Ideia berriak. Auto hobirik.

Beste bost
arrazoi edukitzeko:

Segurtasuna,
segurtasuna,
segurtasuna,
segurtasuna,
segurtasuna.



Opel Astra berria. Segurtasun handiena. EuroNCAP, 5 izar.



www.euroncap.com
Test eguna: 2004ko ekaina

Opel Astra berriak EuroNCAP 5 izar lortu ditu eta goreneko puntuazioa ondorengoetan: alboko eta aurretiko inpaktua txoke proban eta umeei babesa Sedan trinko kategorian. SAFETEC sistema berritzaileak segurtasun aktiboa konbinatzen du, eta hau guztia du barne: IDSplus xasisa, faro moldakorrak, aurretiko aire-zakuak, segurtasun pasiboan berriz: aurretiko aire-zakuak, gortina aire-zakuak eta alboko aire-zaku handiagoak. Astra autoaren inguruan informazio gehiago nahi baduzu, bisita ezazu gertuen daukazun Opel banatzailea edo deitu 902 20 05 90 telefonora edo sartu gure webgunera: www.opel.es

Astra gama: kontsumoa (l/100 km) mistoa 4,9tik 9,3ra. CO₂ emisioa (g/km) 132tik 223ra.

Giauto

Olabarrena, z/g. Tel. 943 76 33 44/46.
BERGARA